

BITAÑO-RI GORAZARRE

Ekainaren 2a zen, duela hogeita bost urte, Nikolas Alzola Gerediagak negarrezko herri honetatik alde egin zigunean. *Gogoan zaitugu. Beti gure barruan. Ez zaitugu inoiz abaztuko...* Zenbat eta zenbat aldiz erabili ohi ditugun antzerako esaldiok. Zein makala, zein ahula den gizakion gogoia. Hogeita bost urte baino ez eta nork gogoratzen Nikolas? Ikastolak eta D ereduak, euskal curriculumak... zeinek daki zure **ATALAK**-en berri, Bitaña? Nork irakurtzen ditu gaur? Zeinek ulertzen ditu? Hogeita bost urte baino ez dira irago utzi gintuzunetik eta ahanzturaren zulo ilunean omen zaude, zeren klasikoen kategoriarik ez damotsugu oraindik. Zein ahulak garen! Memoria historikoa aldarriatzen den garai honetan zein ezdeus garen. Ah ze abiadura daramagun, zein urruti utzi zaitugun Tontorreko Mikolaitz! Zure zertzeladak, zure ataltxoak, zure euskaltzaletasun txairoa gure hurrengo giza aldiari, hurrengo belaunaldiari zelan transmititu!

Ez dakit zorretan nagoen, zorretan gauden Hno. Balentin. Gizon eragile fina, euskaltzale fededuna eta langile nekazina zinela, hau da dakidana. Eta zure hitzez edo zure ezagun batzuenaz lerro arte honetara erakarriaz zure irudia gaurko zurrunbiloan ezagutaraztea pentsatu dut.

Tontorrean, *-jaiotetxearen izena-*, urte zaharrari agur esateko zorian, subilean intxaur saltsa plo-plo-plo-plo trebera gaineko lapikoan... bat-batean ezkaratz ondoko gelan... mutiko morrosko eder baten zilbor hestea ama Eufemigandik eten da.

Gabon zahar. “En la Anteiglesia de Izurza a las diez de la mañana del día treinta y uno de diciembre de mil novecientos veintidos, ante D. Juan Pedro Capanaga juez municipal y D. Saturnino Zuazua, Secretario compareció D. Saturnino Alzola... .. y que al expresado niño se le puso el nombre de NICOLAS M^a...” Urte berri. Eguna luzatzera doa. “Gabon egune-
tik Urte Barrira ahuntzaren saltoa” esan daroe gure nagusiek. Gabon haurtxoa Tontorrean, “... *urte barri, barri-barri, daukonak eztaukonari, nik eztaukot eta niri...*” Tontorra baserrian 1922-1923 zubi laburtxo horretan mutiko zaparrotxo bat. Izena zein ipiniko, eta herriko eliz parrokiako patroiaarena NIKOLAS M^a Alzola Gerediaga.

“Ni Izurtzakoa naiz, baserrikoa. Bilbon estudiantu nuan, gogoratzen naiz hamazazpi urterekin nola ez nuan batere erraztasunik subjuntiboak eta erabilteko erderaz. Orain ere ez larregi. Familia tradizionala nuan, eta tradizionalista gainera. Baina Bilbon hartzen ninduan familia adiskide hartako gizona liberala zan, Pio Baroja eta bere anaiarekin estudiantutakoa. Orduan mentalitate bi ziran nire inguruan, baserriko tradizionala eta kaleko liberala. Baina euskaltzalea zan, Arana Goiri ezagutu zuena, baina ez zuen harrapatu ez ideologian eta ez partiduan. Hura beti liberala izan zan.

Euskera kontuan ere oso gazterik etxean ere bai, liburuak egoten ziran eta, baina batez ere Diputazioko Liburutegian ordu asko sartu nituan. Euskal kulturako liburuak irakurtzen nituan. Esaterako, “Euskal Erria”. Kolekzio hori gutxik ezagutzen zuen; ze leku gutxitan dago osorik. Badakizue “Euskal Herria”(sic) azaldu zala fueroak galdu eta Arana Goiri ageri artean, Manterolak ateratzen zuan, tisiko hil zan hogeita hamairu urterekin. Orduan Euskal Herria irakiten zegoan, eta euskerari heldu zioten, euskera zan Euskal Herriaren arima salbatzeko azken zera. Izugarri euskaltzaletu nintzan ni bura irakurten. Ba hartan ikusten zer edo zerk irten behar zuala, fueroak galdu eta berotasun hartan Arana Goiri fenomeno

guztiz naturala zan. Gipuzkoan sortu izan balitz nazionalismo hori baliteke beste kolore bat izatea. Edo, Durangon, bazan mogimendu bat, fueristak. Ez dago estudiantua. Fueroak kendu eta irakitasun hura, eta gerra galdu ostean Txillardegia eta Juanito San Martin ikusita, esan nien Mitxelenari eta Diez de Tuestari –oso personaje interesgarria, ezagutzen ez dana, ze berak sekretoak eskatzen zuan beti- hemen zer edo zerk irten behar du. Konstante historiko bat da hori. ETaren bezperak ziren.

Komertzio ikasketak burutu zenituen Nikolas. Zu bai mutila zu! Nahinon iskribiente kolokatzeko moduko gazte jantzi dotorea. Neska laguntzen domeka arratsaldetan, margolari dandy... *Bere buruarentzat estua eta zuzena da. Halako batean, 1948.ko maiatzean Irungo La Salleko nobiziaduko atean barrura sartu zen. Etxekoentzat ez zen izan aukera egokiena. Baina bera temati eta egoskor, urlia ere Hermanoa zela-ta...*

Nikolas Alzolak, bere belaunaldiko apaiz-erlijioso gebienek bezala abadegintza, meza emailea izatea aukeratu zezakeen. Ez, oster! Bere barrua, bere bihotzondoa ez zuen duin ikusten Kristoren misterioa eguneroko mezan, aldarean, bere eskuetan eta bere hitzez antzaldatzeko. Gazterik izan omen zuen argi eta Hermano Valentinen bokazioa ez zen, orduan usu zenez, hamaika urterekin komentuan, barnetegian loratu zenekoa, ez. Plaza-mutila da, estudiantea, Bilbon ikasten ari den herri txiki bateko baserritarren semea. Karrera egin deza-keena...! Ez digu bada abitua jantzi eta gainera Gotzain izatera iritsi zitekeen biderik urratu, ez. Apaizgintzan ez du bere burua ikusi “Jauna, ni ez naiz inor...” behin eta berriz erreptikatuko du bere kauten.

Manterolaren aldizkariari esker euskaltzaletu nintzan, politikan ez nintzan sartu. Ni liburutegietako gizona izan naiz beti. La Sallek Beljikan baditu Bellas Artes eta Arkitektura eskolak, eta nire ideia zan hara joatea, baina Europa hankaz gora zegoan gerratearen ondoan, eta probintzialak hemen gelditze-ko, eta zorionez gelditu nintzan, hiru egunetako gelditu ere

Irungo nobiziadoan, eta hogeita bost urte daramazkit. Zorionez, ze barruan banengoan kontzientzia hartuta, baina artista gauza gustatzen zitzaidan, eta zait, eta hemen gelditu nintzanean berehala ezagutu nituan Mitxelena, kartzelatik irten berria orduan.... Arozenak esan zidan behin han zegoala Mitxelena, errederiarra, "es un mirlo blanco", intelijentziaz gizon aparta zalako, orduan ezagutu nuan. Ze kasua eb, Mitxelanarena, hain buru argiko gizona eta ni bezelako afizionatuarekin zenbat ordu pasa ditu hitzegiten eta. Politikaz ere hitzegingo genuan, baina kulturaz batez ere. Nik beti pentsatu izan dut Euskal Herriaren alde lan egiteko arlo haundia daukagula kulturaren. Kulturalista ere esan izan didate. Baina kulturalista kaskarra.

Maisu betebeharrak garaiko estilo zorrotzez bete zituen. Irunen eta Bilbon langileen semeak zituzten ikasle eta gurasoek nekez zuten kultura baten jabe eta lanerako prestakuntza eskaini eta janzten ahalegintzen ziren, dira Lasalletarrak. *"La Sallek herriarentzako sortu zuan ordena, guk obrero semeekin egin dugu lana. Frantziako Erreboluziñoan badakizue, agudo bidaltzen zutela beste mundura jendea, ba azkeneraino defenditu zituan herriak La Salletarrak. Herri txikietan eta behartsuekin egiten zuten lana gebienek. Gu lan eginez bizi izan gara, ez gara mendikanteak izan. Gu, fraideen artean, los de buzo izan gara."*

Irungo hiri handian, karabineroak, aduaneroak, poliziak, erdal giroa kalean nagusi. *"Salleko fraile bizkaitarra Irunen egokitu zen 1950an. Handik aurrera irakaslea izan zen San Martzial ikastetxean. Colegio San Marcial, bestalde, Irungo egoeraren isla zuzena da: Ikastetxe garestiena delarik... hara joaten diren ikasleak "de la situación" ziren horietako semeak erdi mailako eta langile sakrifikatuen ondorengoak izaten dira. Halabaina denetik egon zedin, bazen ere "gratuitas" deitzen zuten sail berezia. Pobreen eskolak ziren...Eskola hauetan aritu zen Hno. Valentin.... Colegio San Marcialgo giroa klasista*

zen. Gratuitakoak eta guk ate banatatik egiten genituen eskolako sartu-atareak...arrunt española zen. Handik pasatutakoak nekez ikasiko zuen Euskal herrian bizi zenik... Eta egoera hartan, halako batean, klasez klase eta banan banan deitu gintuzten batzuk, eskola ordua bukatuta geldi gintezen. Gratuitetako ikasgela batetan bildu gintuzten, hirurogeiren bat, Hno. Balendinen aurrean. Euskaldunak omen ginen eta gure bizkuntza abaztuxea pizkortzeko, astean behin erdi isilean, zenbait gauza ikasiko genuke, elkarrekin euskaraz mintzatuko ginatke. Hango elkarren arteko begiradak! Urteetan elkarri gordetako euskalduntza azalean. Han, eskola berean, gratuitakoak eta pribilegiatuak batera lehenbiziko aldiz, gure bizitza osoan aurrenekoz idatzita ikusiko genituen euskal hitzak harbelean geneuzkala.

Ez zuten, egia esan, luze handirik eduki eskola baiek. Baina Nikolas Alzola Gerediagak euskal mundura zabaldu zigun atea ez zen itxi. Euskaldunon artean konfiantza sortu zen eta hasi ginen, pixkanaka euskaraz egiten. Zor gatzazkio, beraz, Hno. Balentini, une hartan egin zezakeen guzia bete zuelako, gure barnea azalera eramaten lagunduz. Bego, bada, gure betiko oroimanean, Irungo euskalduntzearen aldeko borroka luzean inoiz etsi egin ez zuen gizon bizkaitarra.”

Garratz aroan Nikolasen jasa. Nor zen, zer zen Nikolas? Kristaua? Euskaltzalea? Politikaria? Gizajoa? Zer zen? Denak batera. Hau genuen Tontorreko Nikolas. Karlisten familiarteko zen aldetik hamaika ate eta mila bihotz ireki zitzaizkion han hemen, Durangaldeko... hemen bazegoen non aukeratu gero!

Astiroa

astiroa izan naiz beti.
besteak baino atzerago ni
beti
gauza guztietan

atzerago
eta atzean
beti. beti azkeneko.

horrek erakutsi dit
nere buruz
pentsatu
eta
gogoratzen
nere buruz iritziak
hartzen

eta
bide hori
erabakitzea
ez da beti
barkatzen.

diru bideetara
lagunik gehienak. beste bide
batera ni.

beste bide
batetarik
nere
pauso
astiroak.

askatasunez jokatu dut
iñoren iritziei larregi
begiratu gabe.

eta hor dago bizitza.
bizitza eskekoa.
bizitza biluzia.
helburu apal baterako bizitza pobre eta
luzea. gaur gutxik
aukeratzen duen bizitza bidea.
diruak baino gehiago
bete nauen bizitza.
askatasun handi bat eman
didan kate barruko bizitza.

Itxaropenezko bide barrira

Miñezko kantua amodiozko kantuan
biurtzeko,
ezteukat bildurrik
neure burua ukatu
ta bertanbera itxiteko atzoko bideari.

... ..

Eta gero,
iñoiz be illuntzen ez dan eguneko
egunsentian,
ixiltasunezko paraje zelaira
joaten naizenian,
errukarri
ta parkamenez
artu nagizu
maitasunez Zugan sinistu ta itxaron egin
dodalako.”

Oiztik Anbotora / Durangoaldia / Sorterriaren deia / Nere
bihotzian / Gurutzea Erdoi(tz)an / Etxeko ilobian / Beti maite-
ko zaitut / Bizitza guztian.

Oiztik Anbotora / Durangoaldia / lurralde hontan dago /
nere arimia / erortzen naizenian / lurra hartzen dodanian /
maitatzen jarraiko zaitut / betiko bizian”

1982ko ekainaren 2an bere Bidasoa ertzean, San Martzialen altzoan, lasallearren erretiroan azken hatsa eman eta Aita Santi eta Aita Lino karmeldarrak, Aita Julian betharrandarra, Aita Igiñiz kaputxinoa eta gaur gotzaina dugun Karmelo Etxenagusia meza-buru zirelarik azken agurra eskaini ondoren, lurrarekin bat egin zuen gure izurtzar Tontorreko Nikolas Marik, kristau on eta euskararen alorrean ideologiaz baino haratago izan behar dela, izan behar dugula irakatsi zigun euskaltzale jatorrak.

Integrismotik eta abertzaletasunetik, kristau fedetik eta lagun ateoan iturritik edan zenuen lasallear izurtzar apal horri gorazarre egitea nahi izan dizu zure hilurreneko honetan aspaldiko adixkide honek.

Anttonmari Aldekoa-Otalora
ELKAR Liburudendakoa